

2025 garabide erabepiq

lankidetzan

hizkuntzak biziberritzen



AURKIBIDEA

1- Garabideren aurkezpena	4
2- Aitzinsolasa	6
3- Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala	7
3.1.- GARABIDEn lantalde teknikoaren aurkezpena	8
3.2.- Nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren aldeko apustua	9
4.- Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza	10
4.1.- Bisitaz beteriko Aditu ikastaroa 2025ean	11
4.2.- Kitxua ekintzaileentzako formazioak Euskal Herrian eta Imbaburan	12
4.3.- Diaspora eta jatorrizko lurraldea elkar aurkitu ziren karabana	14
4.4.- Andeen bi aldeetara, maputxeen lurraldean	16
4.5.- Hezkuntza proiektuetan maila bat gora eta biziberritze prozesuaren erronka hedatzen	17
4.6.- Haur zein heldu, kaqchikelari heldu	18
4.7.- Yucatanen bide onaren martxa hartu dute	19
4.8.- Komunikazioan eta hizkuntza paisaian plan estrategikoko neurriak aurreratzen	20
4.9.- Raqaypampako lurralde autonomorako hitzarmena	21
4.10.- Izena duen guztia omen da	22
4.11.- Azken hiztunak irakasle lanetan, buztinaren lurraldean	23
5.- Hirugarren lerro estrategikoa: aktibazio soziala Euskal Herrian	24
5.1.- BIHAR: Hizkuntzetatik jalgitzen ari den mundua	25
5.2.- Errenteriako eskoletako hezkuntza proiektuak bost urte bete ditu	26
6.- 2024ko balantzea	27
6.1.- Garabideren egitura	28
6.2.- Balantze ekonomikoa	29
7- Erakunde babesleak eta erakunde laguntzaileak	30
7.1.- Erakunde babesleak	32
7.2.- Erakunde laguntzaileak	34

GARABIDE:

lankidetzan hizkuntzak biziberritzen

Garabide **irabazi asmorik gabeko Gobernu Kanpoko Erakundea da** eta 2005ean sortu zen euskal lankidetzaren berria egiteko: hizkuntza lankidetzaren. Hau da, kooperazioan lan egiten dugu, baina lan(kidetzaren) hori hizkuntzatik abiatzea da proposatzen dugun berrikuntza eta, gaur egun arte, horretan ari den GKE bakarra gara.



ZER?

Hizkuntza lankidetzaren, euskal lankidetzaren bereizgarria

Euskal Herriak munduarekin partekatze duen esperientzia edo jardunbide bereizgarrietako bat euskararen biziberritze esperientzia da eta, aldi berean, **munduko beste biziberritze esperientzietatik asko dugu ikasteko**. Horregatik, Garabiden gizarte eraldaketaren ardatza hizkuntzen biziberritzean jartzen dugu. Izan ere, **komunitate edo gizarte baten garapenak ezin du integrala izan bere hizkuntza eta identitatea barnebiltzen ez baditu**. Garabideren egitekoak hiru lerro nagusitan sailkatzen ditugu:

- Lehen lerro estrategikoa: finkatze instituzionala
- Bigarren lerro estrategikoa: formazioa eta aholkularitza
- Hirugarren lerro estrategikoa: gizarte aktibazioa Euskal Herrian

2 ZERGATIK?

Mundua larrialdi linguistikoan dagoelako

UNESCOren arabera munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen artean, gutxienez, %43 dago desagertzeko arriskuan. Gainera, Soziolinguistika Klusterrak ohartarazi moduan, **munduan gertatzen ari den hizkuntzen galera masiboa, proportzionalki, handiagoa da bioaniztasunaren galera baino**. Gaur egun, bi astetik behin uzten da hizkuntza bat hiztunik gabe. Hizkuntzen galera edo, hobe esanda, ordezkatzeko prozesuak (hizkuntza gutxituak hizkuntza hegemonikoekin ordezkatzeko baitira) ez dira naturalak eta horren kontzientzia sustatu nahi dugu. Gainera, hizkuntza ekologiaren alde **gizartea antolatu dadin sustatzen dugu gure praktikak eta politikak linguistikoki jasagarriak** izan daitezen.

4 NOREKIN?

Euskalgintzarekin eta munduko hizkuntza aktibistekin zubigintzan

Gizarte eraldaketak, hizkuntza gutxituen biziberritzea kasu, arnas luzeko prozesuak dira eta bidegarriak izan daitezkeen **tokiko eragileek gidatu behar dituzte**. Horregatik, nazioarteko hizkuntza lankidetzaren muina **hizkuntza gutxituen alde lan egiten duten elkarte, erakunde eta hizkuntza aktibistak** dira. Gaur egun, Garabide munduko hamaika komunitaterekin ari da hizkuntza lankidetzan eta Euskal Herrian ere hamaika dira Garabideren laguntzaile eta babesleak. Izan ere, zubigintzan aritzen gara euskalgintza eta munduko bestelako biziberritze prozesuak aurrera eramaten ari diren eragileak elkarren artean lotzeko eta hizkuntzen biziberritzean aurrera egiteko elkarri heldulekuak eskaintzeko.

3 NOLA?

Esperientzia trukearen bidez

Kooperazio era berri honek egiteko modu berriak dakartza, hizkuntza gutxituetako biziberritze esperientzien elkartrukean oinarritzen baita. Komunitate bakoitzaren **hizkuntza biziberritze esperientzia edo know how hori sakonean ezagutzeko formazioa eta aholkularitza** dira gako nagusiak. Hala ere, ez dago errezeta bakarra hizkuntzak biziberritzeko, tokiko ezaugarrien arabera komunitate bakoitzak bere bidea egin behar baitu. Formazio eta aholkularitzek mahai gainean jartzen dute hizkuntza gutxituen auzia globala dela eta aukera eskaintzen dute **estrategia lokalak garatu dituzten munduko erreferente desberdinen esperientziak sistematizatu eta transmititzeko**. Azkenik, hizkuntza lankidetzak biziberritze lanetan ari diren eragileen sarea ehuntzen du eta horri esker ahalduztze (g)uneak eratzen dira, hau da, bestelako gutxiagotzeak elkar lotzen ditu hegemonien deseraikuntzan laguntzeko.

5 NON?

Euskal Herrian eragin mundua aldatzeko

Nazioarteko hizkuntza lankidetzak, begirada zabalera, **euskalgintzaren nazioartekotzea** eragiten badu ere, bere eginbeharra ez da urruneko lankidetzaren proiektuetara mugatzen, **Euskal Herrian gizarte aktibaziorako tresna garrantzitsua** baita. Hizkuntza lankidetzaren etengabe ari da euskararen biziberritze esperientzia jaso eta ezagutarazten, modu ulerterrazean dibulgazio eleaniztuna egiten (liburuxkak, ikus-entzunezkoak, erakusketak, hitzaldiak...), ez soilik nazioarteko eragileekin partekatzeke, baizik eta gurean **euskararen biziberritze esperientziari dagokion balioa eman eta esperientzia horren transmisioa errazteko**.

Pozik egoteko modukoa da Garabide Elkartek 2025ean egindako bidea eta, bere lan emankorren artetik zein hautatzea erraza ez den arren, badaude bereziki azpimarragarriak diren bi.

Bata, azken urteotako jardun-izarra izaten ari den Aditu ikastaroa da, zeinak ohi baino are zapore goxoagoa utzi dien horren bueltan aurten ibili diren guztiei. Horretan, dozena bat kultura eta hizkuntza gutxitutatik etorri diren ordezkariak prestatze- eta interes-maila handiak erakutsi dituzte, eta ikastaroan zehar ikasitako eta ikusitako edukien gaineko beren balorazioak guztiz positiboak izan dira. Mila-mila esker hori posible egin duten Garabideko lankideei eta kolaboratzaileei!


Beste jarduna Euskal Herriko lurretatik harago kokatzen da. Zehatzago, 2025ean, Amsagar jer dyaspura d Arif: X wbrid n tgumi n tutlayt tarift (Diasporaren eta Rifin arteko topaketa: tarift hizkuntza zaintzeko bidea) izeneko ekimen berrian parte hartu du Garabidek. Hartara, abuztuaren 27tik irailaren 5era, 50 bat ekintzaile amazigh hizkuntza eta kulturaren alde bildu ziren, Rifeko lurraldeetako Alhucemas eta Nador artean. Bertan, Euskal Herriko ordezkaritza bat ere izan zen, Plazara eta Garabideren eskutik, hain zuzen. Eta bi elkarte horiek, aldez aurretik, proiektuaren definizioan ere buru-belarri arituak ziren.

Lankidetzan jarduteko asmoa, beraz, ez zaio Garabideri agortzen urrutiko hizkuntza komunitateetan, eta elkarlana gure herrikideekin ere bilatzen du.

Bistan da betiko jardunei sendo eustea ez ezik, bide berriak arakatzea ere gustuko duela Garabidek. Oso litekeena da, hartara, 2026an elkartearen zerumugak zerbait urrutiagora ere iristea.



Iñaki Martínez de Luna
Garabideko Lehendakaria



1. lerro estrategikoa

FINKATZE
INSTITUZIONALE

GARABIDEren lantalde teknikoaren aurkezpena

Pertsona bakoitzaren ekarpenak egiten du posible erakundearen jarduera



Garabideko lantaldeko kide batzuk

GARABIDE OSATZEN DUGUN PERTSONAK, BAZKIDEAK ZEIN BOLUNTARIOAK ETA GURE ONDOAN DAUDEN ENTITATE SOZIAL ETA PUBLIKOAK ANITZAK GARA ETA GUZTIOK EGITEN DUGU POSIBLE ERAKUNDEAREN JARDUERA.

Guztien ekarpena funtsezkoa bada ere, eguneroko dinamiken koordinazioa eta proiektuen garapena lantalde teknikoaren ardura nagusietakoa da; talde profesional honek Garabideren proiektuak aurrera atera eta ezarritako helburuak betetzeko lan egiten du.

Lantalde teknikoa hamar lagunek osatzen dute, eta horiei, bulegoan diharduten bi boluntario gehitu zaizkie.

- Eñaut Agirre Goia, koordinatzailea
- Juan Luis "Gatxi" Arexolaleiba Biteri, boluntarioa
- Gorane Ayesta Maidagan, proiektu arduraduna
- Endika Blanco Bravo, proiektu arduraduna
- Xabier Etxeberria Unzurrunzaga, proiektu arduraduna
- Joanes Igeregi Santamaria, proiektu arduraduna
- Irati Amondarain Labayen, proiektu arduraduna
- Xabier Meabe Sarriegi, komunikazio arduraduna
- Mariasun Sarrionandia Ariznabarreta, boluntarioa
- Maiteder Sasieta Murua, proiektu arduraduna eta administrazio arduraduna
- Nerea Uriarte Goitia, harreman instituzionaletarako arduraduna
- Urtzi Urrutikoetxea Vacas, proiektu arduraduna

Nazioarteko lankidetzaren eta elkartasunaren aldeko apustua

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen lehendakaritza hartu du Garabidek



Bozketa Batzar Orokorrean. Argazkia: Euskadiko GGKEen Koordinakundea

EUSKADIKO GGKEEN (Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea) KOORDINAKUNDEAK 2025EKO OHIKO BATZAR OROKORRA EGIN ZUEN EKAINAREN 6AN.

Testuinguru geopolitiko konplexu eta aldakor batean burutu zen biltzarra, oso presente zeudelarik nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketak, lankidetzaren politiken murrizketa orokortua eta belizismoaren zein gastu militarren gorakada.

Koordinakundearen Gobernu Batzordea organo exekutiboa da, eta bazkide diren GGKEetako zenbait ordezkari osatzen dute. Batzar Orokorrean bi aldaketa onartu ziren egitura horretan eta horien artean Koordinakundeko lehendakaria hautatzeko bozketa egin zen. Hala, Nerea Uriarte Goitia aukeratu zuten, Garabideko harreman instituzionaletarako ardura-duna. Nerea lehendakariorde lanetan ari da 2022tik gaur egun arte.

Koordinakundea 1988an sortu zen eta 83 erakundek osatzen dute. Hala, GGKEek egindako lana 63 herrialdetara iristen da eta 3.318.225 pertsonaren bizitzan eragiten du.

Koordinakundeak defendatzen du elkartasunean, elkarrekikotasunean eta eskuzabaltasunean oinarritzen den nazioarteko lankidetzaren. Halaber, justizia sozialarekin duen konpromisoaren ondorioz, Euskaditik modu horizontalean lan egiten du herrialde pobretuekin eta egoera zaugarrian dauden kolektiboekin batera. Horretarako, ezinbestekoa da sustatzea garapenerako euskal lankidetzaren politika sendoa, berritzailea eta egonkorra erakunde publiko, pribatu eta GGKEetan.



2. lerro estrategikoa

*FORMAZIOA ETA
AHOLKULARITZA*



Adituko partaideek Amaiurko gazteluaren hondakinak ezagutu zituzten Aranzadi Zientzia Elkarteko Mikel Legorbururen eskutik

BISITAZ BETERIKO ADITU IKASTAROA 2025EAN

Aurten 16. edizioa bete du Aditu ikastaroak

Ozeaniako bisita iritsizen Aditu ikastarora, lehen-dabiziko aldiz, munduko hizkuntza gutxituen mapan beste puntu bat eta beste errealitate bat ezagutzeko parada.

2025ean 16. edizioa bete zuen formazioak eta aurreko urteetan bezala, Abya Yalako ordezkariak izan ziren nagusi, eta Afrikako bi ordezkari ere izan ziren.

Urteak aurrera joan ahala, Adituak sortu du oihartzun bat, eta poliki-poliki

ari da beste errealitate batzuetako komunitateen interesa pizten. 2025ean, Australiako Groote Eylandt irlako kide bat izan zen gurean, 15 egunez, anindilyakwa komunitatekoa, Sylvia Cynthia eta interpretari lanak egin zituen beste australiar bat ere berekin izan zuen, Lauren Campbell. Horrez gain, ordea, izan ziren Aditua ezagutzeko gogoz etorri ziren beste hainbat bisita: poeta maputxe bat, idazle eta musikari mixeak...

Irailaren 19an hasi eta urriaren 30 bitarte, 18-20 pertsonako taldea ibili zen egunero, Aretxabaletako formazio klaseetan eta Euskal Herriko lurraldeetan egindako bisitetan. Hamahiru hiz-

kuntza gutxitutako ordezkariak izan ziren: Mexikotik mixeak eta Yucatango maiak, El Salvadorreko nawat pipila, Haitiko kreolera, Guatemalako maia kaqchikela, Ekuadorreko kitxua, Boli-viako ketxuak eta guarania, Kolonbia-ko nasa, Argentinako Corrienteseko guarania eta Txileko maputxeak. Afrikako bi ordezkariak bubia eta amaziga izan ziren, Ekuatore Gineako Bioko irla-koa eta Marokoko Atlas mendietakoa.

Adituaren izena zabaltzen ari da pixkanaka eta 20. ediziorako bidean, euskaldunon esperientzia munduko bazter askotara zabaltzen ari da, eta gero eta esperientzia gehiago ari dira gurrera gerturatzen.

“BARNE BISITETAN”, BETI BEZALA, EUSKALGINTZAKO ATEAK ZABAL- ZABALIK

“Kanpo bisitak”, beraz, azpimaragarriak izan ziren 2025ean. Ezin ahaztu, ordea, betiko moduan, “barne bisitak” izan zirela Aditu ikastaroaren muina. 45 bisita egin zituen Adituko taldeak Euskal Herriko luze zabalean, hasi Bizkaitik eta Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldean. Esan liteke, euskalgintzak ateak zabal-zabalik izan zituela eta besoak zabal-zabalik hartu zituela 20 hizkuntza aktibistak. Barru barrutik ikusi ahal izan zuten euskalgintzak egiten duen lana, hasi elkarerik txikienetik eta instituziorik handienara: elkarte, ikastetxe, akademia, unibertsitate edo gobernu, denek erakutsi zieten euren lanean euskarak daukan pisua eta ibilbidea.

45 bisita horiez gain, 15 sentsibilizazio saio egin ziren. Esan liteke, orokorrean, euskaldunok interes handiz bizi dugula beste hizkuntza gutxituen egoera eta borroka. Horretarako antolatu ziren 15 sentsibilizazio saio eta oro har, ikastetxe, unibertsitate zein kultur etxe, harrera ona izan zuten.

45 bisita, 15 sentsibilizazio saio, beraz... Eta ia 90 klase ordu! Ahaztu gabe, formazioa borobiltzeko. Adituaren beste muina dira klase teorikoak, euskararen biziberritzean esperientzia izugarri duten adituen eskutik eskaintzen direnak. 21 aditu guztira, Garabiderekin kolaboratzen dutenak.

KITXUA KOMUNITATEA - EKUADOR

KITXUA EKINTZAILEENTZAKO FORMAZIOAK *Euskal Herrian eta Imbaburan*

Aurten lan handia egin dugu Imbaburan kitxua biziberritzeko lanean ari diren lantaldeekin, haien egitasmoak indartzen laguntzeko formazio espezializatua eman da



Euskal Herriko formazioan parte hartu duten kitxuak Billoko Euskararen Etxean

Imbabura probintziako kitxua komunitatearekin lanean jarraitu genuen 2025ean ere, Sisariy erakundearen eskutik. Lankidetzaz ildoen artean, azpimarratzekoa da maiatzean hamar kitxuak Euskal Herrian egindako formazioa. Hiru biziberritze arlotako ekintzaile kitxuak bertaratu ziren, helduen

irakaskuntzakoak, hezkuntzakoak eta administrazio publikoaren arlokoak, eta hiru arlo horietako estrategia eta tresnetan sakondu zuten, batez ere, Euskal Herrian emandako bi asteetan. Horretaz gain, hizkuntzak biziberritzeko prozesuen gako orokorrak aztertuz, hizkuntzaren aldeko gizarte

aktibaziorako hainbat egitasmo eza-gutu zituzten, eta Imbaburako kitxua biziberritzeko erronka eta lan ildoez hausnartu zuten, formazioan jasotakoa haien testuingurura eramateko asmoz.

Imbaburan ere formazio-bidaia egin genituen 2025ean. Batetik, Elhuyarreko Juanjo Perez administrazio publikoko lantaldearekin batera lanean aritu zen, Imbaburako tokiko erakundeetan kitxuaren normalizazio planak ezartzeko laguntza ematen. Bestetik, AEK-ko Esti Nieva eta Joseba Irazabal helduen irakaskuntzako lantaldearekin lanean aritu ziren, helduei kitxua irakasteko materialgintza lanari bultzada emateko. Azkenik, Lurdes Auzmendik online formazioa egin zuen kitxua-gaztelania interpreteen taldearentzat, eta formazioa presentzialki borobildu zuen abenduan. Formazio horiek eta urtean zehar etengabe emandako aholkularitzarekin, kitxua lantaldeek lanean jarraitu dute, haien hizkuntza biziberritzeko egitasmo berritzaileak martxan jartzen.



Euskal Herriko formazioan parte hartu duten kitxuak Bilbo Hiria Irratian



Euskal Herriko formazioan parte hartu duten kitxuak Bilboko AEKn



Euskal Herriko formazioan parte hartu duten kitxuak Zumaiaiko hondartzan



Karabanako parte hartzaileak amazig komunitatearen erreferentziazko toki baten bisitan

AMAZIGAK - AFRIKA IPARRALDEA

DIASPORA ETA JATORRIZKO LURRALDEA ELKAR AURKITU ZIREN KARABANA

Rifeko amazigek jazarpena eta bazterketa jasaten dute haien herrian. Horren ondorioz, gazte belaunaldi berriek lurraldea utzi eta Europara migratzen dute etorkizun oparoago baten bila. Hala, Europan barreiatutako diasporak askotariko dinamikak sortzen ditu haien jatorrizko hizkuntza, kultura eta identitatea biziberritzeko. Rifetik gertu diren gazteek ere, sasi guztien gainetik, bide berdinean lanean jarraitzen dute. Karabana honen bitartez elkar aurkitu dute bi munduek.



Karabanan zehar egin zuten tailerretako bat

Azken urteetan amazig komunitatea rekin ditugun hartu-emanetan gero eta nabariagoa da diasporaren ekarpena kultura, hizkuntza eta identitate amaziga biziberritzeko dinamikan, ekarpen indartsua egiten ari baitira. Hala, azken urtean jatorrizko lurraldea eta diaspora elkartu zituen proiektu bat bultzatzen aritu izan gara Garabide eta Plazara: Amazig Karabana.

Aditu Programan parte hartu zuen diasporako amazig kide baten egitas-motik eraiki zen Karabana, Korrika eta EuskoAbenturaren esperientziak abiapuntu hartuta. Bi astez, Rifan, Alhucemas eta Nador artean, diasporako eta lurraldeko gazteez osatutako ia 50 lagun inguruko talde bat elkartu zen. Tarifitez aritu, haien historia, kultura eta jatorria ezagutu eta etorkizuneko proiektu eta erronkak eztabaidatzeko parada izan zuten.

Zehazki, Euskal Herria, Katalunia, Melilla, Alemania, Belgika, Herberheak eta Frantziako ia 20 lagun hurbildu ziren Rifeko lurraldera. Bertan, Alhucemas, Nador eta Driucheko beste 30 gazte ingururekin elkartu ziren. Esan bezala, hizkuntza frankoa Tarifita zen, Rifeko amazigaren aldaera, eta bereziki diasporako hainbat kiderentzat, haien guraso eta kasu batzuetan aiton amonen hizkuntza praktikatzeko aukera izan zen egonaldia. Bestetik, Rifarren historiako toki esanguratsuak bisitatu zituzten, Abd El Krimen jauregia eta Annualgo gudu zelaia izan zena, besteak beste. Horren bitartez, parte hartzaileek, historia ofizialean azaltzen ez den kontaketa eta ikuspuntu bat ezagutu zuten, Riftar ikuspegitik. Horrez gain, Rifeko paraje, kultura eta gastronomia askotarikoak gozatzeko aukera ere izan zuten partaideek.

Azkenik, karabana eztabaidarako espazioa ere izan zen. Garabidetik, adibidez, Jon Sarasuak Hizkuntzen Biziberritzeari buruzko oinarritzko formakuntza saioa eskaini zuen, eta hizketaldi hori akuilu izan zen, tarifitaren egoeraz hitz egin, parte hartzaileek hizkuntzaren bizigarritasunari egiten dioten ekarpenaz jabetu, etorkizunera begirako erronkak identifikatu eta dinamika berriak eraikitzen hasteko.

Laburbilduz, proiektu honekin diaspora lurraldera hurbildu zen eta bere ekarpena lurraldera bideratzea bultzatu zen. Bestetik, lurraldeko gazteek Rifan dauden zailtasunei, denbora labur batez, ihes egin, eta ohi baino modu askeagoan irudikatu ahal izan zituzten haien komunitatea, kultura, identitatea eta hizkuntza nola bizi nahi dituzten etorkizunean. Balio beza urte honetako erronkak halako errealtate konplexuetan eragiteko modu berriak sortzeko.

MAPUTXEAK

ANDEEN BI ALDEETARA, MAPUTXEEN LURRALDEAN

Kongresu bat, online formazioa eta Garabideko kideen bisita izan ziren 2025ean

Urteetako harremana izan du Garabidek maputxeekin, ia erabat Gulumapuko lurretan, “mendebaldeko lurretan”, Txileko estatuan. 2025ean, besteak beste, Andeen beste aldeko lurretara ere iritsi zen, Puelmapura, “ekialdeko lurretara” hain zuzen ere, Argentinako estatura. Mugaren bi aldeetan, Wallmapun, “Maputxeen lurtean” hizkuntza beraren alde lanean ari diren kideak ezagutu zituen, beraz, Garabidek.



Cerro Loncoche Kulturarteko Ikastetxea

2025eko ekintzen artean, horixe zuen Garabidek helburu gisa jarrita: mapuzugunaren alde lanean ari diren ahalik eta esperientzia gehien ezagutzea, lehen ezagunak genituen gain. Endika Blancok egindako bidaian, azpimarratzeko moduko bi esperientzia ezagutu zituen Garabidek: bi ikastetxe, murgiltze ereduan klaseak ematen ari direnak, Gulumapuko lurretan; eta Hezkuntza Elebidunean lanean ari diren irakasle talde bat biltzen duen elkarte, Puelmapuko lurretan. Bi esperientzia horiekin lehendabiziko lo-

karriak osatu ziren, beraz. Horren isla moduan, batetik, Gulumapuko bi ikastetxe horietako bi zuzendariak etorri ziren Aditu ikastarora; eta bestetik, Puelmapuko irakasle elkarte horrekin online formazioa egin zen, urrian hasi eta azaroan buka. Belen Uranga eta Ane Ortega Garabideko kolaboratzaileak izan ziren formazio horretan, besteak beste.

Horrez gain, udaberrian, Nazioarteko Kongresua antolatu zuten Santiagon, eta Euskal Herriko esperientzia azaltzen izan zen bertan Ane Ortega.

NASAK - CAUCA, KOLONBIA

HEZKUNTZA PROIEKTUETAN MAILA BAT GORA ETA BIZIBERRITZE PROZESUAREN ERRONKA HEDATZEN

Orain dela lau urte ekin zitzaion hezkuntza esparruko proba pilotuak sortzearen dinamikari. Prozesu honek aurrera jarraitzen du, eta horrez gain, biziberritze prozesua nasek gobernu propioko egituretan txertatzeko lehen eztabaidak ari dira egiten.

Azken urteetan gero eta haur eta heldu gehiago ari dira pasatzen orain dela lau urte martxan jarritako proba pilotuetatik. Hala, 2025ean, murgiltze ereduari 3. maila gauzatu zen bi zentrotan. Datorren urterako laugarren mailako materialak prestatu ziren, eta hainbat auzoetan murgiltze ereduak eskolak martxan jartzeko interesa erakutsi zuten. Helduen irakaskuntzan ezin izan zen bigarren mailako eskolarik martxan jarri, baina urtean zehar materialak hobetu ziren eta 2026an egingo da.

Baina prozesua ez zen hezkuntzara mugatu. Komunikaziotik hizkuntzarekiko sentsibilizazioa zabaltzen jarraitu zuten irratsaiotik. Inprenta propio bat lortu zuten, eta materialen sorkuntza prozesua osoaren jabetza haien esku dute nasek. Itzulpengintzako lantaldeak erronka berri bat du, Kolonbiako Institutu Geografikoarekin batera lurraldeko toponimiak bildu, katalogatu eta dokumentatzea.

Azkenik, autoritateekin gobernu propioko egituretan hizkuntza biziberritzeko politikak txertatzeko lehen elkarrizketak egin ziren. Harrera ona izan zen, horrek biziberritze prozesuak salto kualitatiboa egitea ahal-



Proba pilotuetako murgiltze ereduak eskola bat Toribion



Toribioko hizkuntza aktibitateak hausnarketa saio batean

bidetuko duela uste dugu. Gainera, prozesuak nazioarteko aitortza jaso zuen Linguapax elkarteak emandako sariari esker.

KAQCHIKEL KOMUNITATEA - GUATEMALA

HAUR ZEIN HELDU, KAQCHIKELARI HELDU

Kaqchikel eskolekin lanean jarraitu genuen 2025eko egitasmoan, eta ALMGrekin lankidetza hasi genuen helduen irakaskuntzaren arloan.

2025ean ere Ruk'u'x Qatinamit eskola sarearekin lanean jarraitu genuen, aspaldi hasitako bideari jarraipena emanez. Aurreko urteetan bezala, ikasmateriala sortzea eta irakasleen formazioa izan ziren lan ildo nagusiak. Materialgintza lanari dagokionez, lehen hezkuntzan zientziak kaqchikelez irakasteko unitateak sortu zituzten eskolek, eta, formazioaren arloan, Iñaki Gonzalez Arizmendiko irakaslearen egonaldia izan zen urteko jarduera nagusia. Uztaila eta abuztu artean egindako bidaian, kaqchikela irakasteko metodologiaren inguruko saioak egin zituen eskoletako irakasle, zuzendari eta gurasoekin.

Garabidek emandako laguntzarekin eta haiek egindako lanarekin, sareko eskolek bide aitzindaria urratu dute haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntza kaqchikelez emateko. 2025ean, gainera, lehenago sarean egondako bi eskola batu ziren egitasmoa berriz ere, Chimaltenangoko K'astajib'al eta Patziciako Aj Sya. Covid-19aren ondorioz, saretik alden du behar izan zuten bi eskola horiek, bizirauteko premiak behartuta, eta 2025ean berriz ere hasi ziren sarearen jardueretan parte hartzen, lehenengo egonkortasuna lortzen hasi eta gero.

Eskola sarearekin egindako lanaz gain, formazioa egin genuen ALMGrekin (Guatemalako Maia Hizkuntzen Akademia) ere. Beste arlo batzuekin batera, akademiak helduentzako hizkuntza ikastaroak ematen ditu, eta,



Uztaila eta abuztu artean eskolekin egindako formazioaren une bat

arlotan formazio metodologikoa emateko, Esti Nieva eta Joseba Irazabal AEK-ko irakasleak Guatemala joan ziren uztailaren amaieran. Haien egonaldiaren, kaqchikel akademiako irakasleekin formazio saioak izan zituzten, baita gainerako maia hizkuntzetako akademiako irakasleekin ere. Arlo horretan Guatemalan egindako lehenengo pausua izan zen hau, baina elkarlanerako aukera handiak ikusi zituzten Estik, Josebak eta ALMGko ordezkariak. Erronka polita daukagu, beraz, Kaqchikel komunitatean eta Guatemalan beste biziberritze arlo batean bidea egiteko.



YUCATANGO MAIA - MEXIKO

YUCATANEN BIDE ONAREN MARTXA HARTU DUTE

Azaroaren erdialdeko topaketan agerian geratu zen moduan, ereile sare indartsua ari dira sortzen arloz arloko aktibista eta herri mailako eragileen artean



Izamalgo topaketa 2025eko azaroan

2022-2024 biurtekoa garrantzitsua izan zen oso Mexikoko Yucatan eskualdean: penintsula osoarentzako baliagarri izan nahi duen hizkuntza plan estrategiko bat diseinatu zen horretarako hainbat lantalde espezializatu martxan jarri. Gainera, Penintsula osoko maiak sensibilizatzeko balio izan duen laburmetraia bat grabatu zen, eta horri esker herriz herri hainbat hizkuntza talde sortu dira hizkuntzaren normalizazioari gertutik eragiteko.

Lehen fase horretan lortutakoari jarraipen bat emateko hurrengo biurtekorako ere (2025eko ekainetik 2027ko

ekainera) Kellog Fundazioaren diru laguntza lortu zen. Bigarren fase honetan lehenean diseinaturiko planaren inplementazioa egingo da, eta jada hasia da lana emaitzak ematen: hezkuntza Indigenako Idazkaritzari esker murgiltze ereduko hainbat zentro piloto sortzeko hitzarmena lortu da, Merida, Cuncunul eta Tixcacalcupuleko udalekin hitzarmena sinatu da udal hizkuntza planak sortu eta inplementatzeko, eta jada hasiak dira pausotxoak ematen: paisaia linguistikoaren aldaketa, komunikazioak elebitan egitea eta helduen irakaskuntzaren indartzea besteak beste.



Azaroaren hirugarren asteburuan Garabideko Maiteder Sasetak eta Mariasun Sarriionandak Yucatango Izamal herrian penintsula osoko aktibisten topaketa parte hartzeko aukera izan zuten. Topaketa horretan aktibista lokalak eta arloz arloko ereile espezializatuak bildu ziren, bakoitza zertan dabilen partekatuz eta esperientziak elkarbanatuz penintsulako mugimendu honetan bakoitzak duen garrantzia eta papera identifikatu ahal izan zituzten.

Bistan geratu zen sare bat osatzen dutela, eta egiten ari diren lan bikainari esker geroz eta zabalagoa dela.

GUARANIAK - BOLIVIA

KOMUNIKAZIOAN ETA HIZKUNTZA PAISAIA PLAN ESTRATEGIKOKO NEURRIAK AURRERATZEN

2025ean guarani hizkuntzan komunikazio proiektu bat eta hizkuntza paisaia eragiteko planteamendu bat eraiki ziren



Gazteekin egindako komunikazio tailerreko une bat.

Orain dela bost urte, Charagua Iyambaeko autonomia indigenan guarani hezkuntzarako plan estrategiko baten eraikuntzan aritu ginen. Zoritxarrez, plan hori hainbat urtez kajo batean gordeta egon zen. 2024an, bertako gure kideekin hitz eginez, berriz mahai-gaineratu genuen auzia, eta 2025ean plan estrategikoa inplementatzen has-teko pausoak ematen hasi ginen.

Hala, ikasturte horretarako erronka nagusia bertako hainbat autoritate Euskal Herrira ekarri eta hizkuntzen

biziberritze prozesuaz sentsibilizatzea izan zen. Zoritxarrez, bisatuak ukatuak izan zitzaizkien.

Hala ere, ez ginen geldirik egon, eta plan estrategikoa autoritateek haiena egin aurretik hainbat dinamika martxan jarri genituen, bi esparrutan nagusiki. Batetik, komunikazioan, iazko Adituan bisitatu gintuen guarani aktibista baten eskutik, bertako hainbat jai eta erritualen sare sozialetako jarraipena egin zuten. Hala, guarania, jatorrizko hizkuntza, teknologia be-

rrietan eta sare sozialetan txertatu zuten. Bestetik, paisaia linguistikoa landu zen. Lurraldean izugarrizko landa lana egin, eta aldatu edo egokitu beharreko paisaia linguistikoa zehazten zuen proposamena prestatu genuen. Hala, proposamen hori tokiko autoritateekin eztabaidatzeko prest dago.

Laburbilduz, autoritateek neurriak hartzen ez dituzten bitartean, lurraldeko hizkuntz aktibistak pausoak ematen jarraituko dute.

KETXUAK - BOLIVIA

RAQAYPAMPAKO LURRALDE AUTONOMORAKO HITZARMENA

Urte hasieran, hainbat elkartek, Raqaypampako lurralde indigena autonomoan ketxua hizkuntzarentzat plan estrategiko bat eraikitzeko hitzarmena sinatu genuen

Raqaypampa Bolivian autonomia indigena lortu zuen lehen lurralde ketxua da eta Cochabambako departamentuan dago. Hala, hitzarmenean, askotariko eragileak elkartu ginen: CENAQ, Univalle Unibertsitatea, Khuska Purispa, tokiko autoritateak eta Garabide. Konbenioaren helburua Raqaypampako lurraldearentzat garapen plan integral bat osatzea bada ere, Garabideren ekarpena hizkuntza alorrekoa izango da.

Plan estrategikoa diseinatzeke badago ere, 2025ean hasi ziren lehen pausoak egiten lurraldean. Hala, tokiko hezkuntza komunitatearen laguntzaz, lurraldean hizkuntza ketxuak duen egoera ezagutzeko diagnostiko prozesu bati hasiera eman zitzaion. Lurraldean 7.000 biztanle inguru daude eta 1.300 galdetegi egin ziren. Hurrengo pausoa galdetegi horien irakurketa egin eta lurraldera egoituta ekintza plan bat diseinatzen hasia izango da.

Bestetik, garrantzitsua da ere, urteko azken hilabeteetan Khuska Purispa hizkuntza aktibisten taldearekin harremanak estutu zirela, eta berau Cochabambako departamentutik haratago, ketxua nazio osoan hedatzeko planteamendua garatzen ari garela, Potosi eta Chuquisacan delegazio bana sortuz. Hala, elkarte horren bitartez, lurralde ketxua osorako irismena lortuko dugu, eta garatzen diren proiektuak izaera integralago bat izatea, hezkuntza, komunikazioa zein esparru politiko-sozialean eraginez.



Gazte bat Raqaypampako herritar bat galdekatzen

EKUATORE GINEA

IZENA DUEN GUZTIA OMEN DA

*2025ean Ekuatore Gineako ĖVÓVĖ/ĖBÓBĖ Elkartearekin
elkarlanean hasi ginen.*

Bubi komunitateko zenbait kidek hizkuntzak biziberritzeko formazioan (Aditua) parte hartu ondoren, ĖVÓVĖ/ĖBÓBĖ elkartearen eta Garabideren arteko lehen lankidetzaz-hitzarmena gauzatu genuen 2025ean bubi komunitatearen 2026rako egutegi proiektua babesteko asmoarekin. Egutegi horretan urteko egun bakoitzari izen

bubi bat egokitu zitzaion, dagokion esanahiarekin.

Ekimen horren helburua bubi izenak ahanzturatik ateratzea eta familiek jatorrizko izenak mantentzen laguntzea izan zen. Ondare kolonialaren ondorioz, jatorrizko izenak abizen bihurtu ziren, antolaketa politiko eta familia-identifikazio neurri inposatu

gisa. Bubi herriak lanean jarraitzen du horrelako jardueren bitartez bigarren planoan kokatutako izen horiek berreskuratzeko eta bere hizkuntza biziberritzeko. Jarduera horrekin batera, kultura-jarduerak antolatzen dituzte Bioko uharteko herrietan, bereziki bertako kulturaz ezagutza sakontzeko interesa duten gazteekin.



Bubi izenen 2026ko egutegiaren aurkezpena



NAHUAT PIPILAK - EL SALVADOR

AZKEN HIZTUNAK IRAKASLE LANETAN, BUZTINAREN LURRALDEAN

Nahuat pipilak jatorrizko ehun hiztun baino gutxiago ditu



Nantzin-ak dira nahuat pipil eskoletako protagonista

“Nahuataren sehaskak” deitutako eskolatan jatorrizko azken hiztunak dira irakasle lanetan ari direnak, “nantzin” izenekoak, “zaindariak”, euren hizkuntzan. Beste irakasleekin batera, nantzin hauek euren hizkuntzan hitz egiten diete umeei, kantatzen eta jo-lasten. Helburu jakin batekin ari dira, euren hizkuntza erakustea. Azken hiztunak dira, 60 urtetik gorakoak denak, eta ez dira 100 lagunetara iristen. Orain artean baztertuak izateko motiboa zen, baina orain begi onez ikusten ditu komunitateak, eurak baitira komunitate honen identitatearen zatirik

garrantzitsuena mantentzeko azken esperantza.

Buztinaren lurraldea dela diote, El Salvadorreko hego mendebaldean, Sonsonaten batez ere, Santo Domingo de Guzmanen, bereziki. Lurrari forma emanez hazi dira buztinaren artisau hauek, euren identitateari eusteagatik zigortu zituztenak, ia desagertzearaino. Lenka hizkuntzarekin batera, El Salvadorreko azken hizkuntza indigena gordetzen dute nahuat pipilek. Lehen asko izan ziren; orain oso gutxi dira. Nahuat hizkuntza handia lehengusu gertukoa dute, goraxeago hitz egiten

dena, eta akaso haren itzalagatik, edo beti mantendu duten indarragatik, biziberritzeko gogoz ari dira. Argi izpiak: badira hiztun berriak eskolatan, badira hizkuntza lo eduki duten hiztunak berriz hizketan hasi direnak... nantzin xaharrek azken ahalegina egin dute ia ezinezkoa dirudiena lortzeko. Artisauen herri honek ea ahalegin horri forma ematen asmatzen duen.

Proiektu honek Iruñeko Udalaren babesa dauka eta hiru elkarte ari dira lanean: El Salvadorreko Don Bosco Unibertsitatea, El Salvador Elkartasuna eta Garabide.



3. Ierro estrategikoa

AKTIBAZIO SOZIALA
EUSKAL HERRIAN

BIHAR:

HIZKUNTZETATIK

JALGITZEN ARI DEN MUNDUA

Plazara Kolektiboak, Soziolinguistika Klusterrak, Taupa Mugimenduak eta Garabide Elkarteak elkarlanean abiatu zuten BIHAR egitasmoa.



BIHAR egitasmoko marka

Azken urteotan, nazioarte mailan antzeman da ahultzen ari direla hizkuntza-aniztasuna eta hizkuntza gutxituen biziberritzea defendatzen dituzten diskurtsoak. Errealitate honen aurrean, lau eragileek BIHAR proiektua jarri zuten martxan, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesarekin, eta nazioarteko nahiz Euskal Herriko beste zenbait eragileen lankidetzarekin. Egistamoak hiru ardatz nagusi ditu: nazioarteko diag-

nostikoa, sozializazioa eta Nazioarteko Kongresua.

Proiektuaren xedea da biziberritzearen aldeko kontakizunak eguneratzea, haien gaitasun eraldatzailea indartzeko eta egungo erronkekin konektatzeko. Helburu bikoitza du: batetik, Hego Globaleko komunitateetan sortzen ari diren diskurtso berriak ikusgarri egitea, biziberritzea beste borroka sozialekin (feminismoa, ekologismoa, migrazioak...) uztartuz, eta bestetik, ikuspegi horiek euskal eragileengana

hurbiltzea, esperientzia anitzen arteko elkartruke horizontal eta aberasgarria sustatzeko.

2025. urtean zehar nazioarteko diagnostikoa burutu zen, hizkuntza biziberritzeari loturiko diskurtso eraldatzaileak aztertu eta sistematizatu ondoren. 2026aren hasieran, Euskal Herrian sozializazioari ekingo zaio, eta irailaren 23tik 26ra **BIHAR Kongresua** egingo da: Biziberritzen ari diren hizkuntza komunitate gutxituen Nazioarteko Kongresua.



BIHAR egitasmoko talde eragilea bilera batean

ERRENTERRIAKO ESKOLETAKO HEZKUNTZA PROIEKTUAK **BOST URTE BETE DITU**

*2025-2026 ikasturtearekin batera,
Errenteriako ikastetxeetan kultura
aniztasuna aitortu eta balioan
jartzea helburu duen hezkuntza
proiektua berriz abiatu zen*

Bosgarren urtez, "Kultura aniztasuna gure eskoletan eta horren balioa komunitateen arteko elkarbizitzarako" proiektua gauzatu zen udalerriko sei ikastetxetan: Koldo Mitxelena BHI, Egiluze Ikastetxea, Cristobal Gamón BHI, Orereta Ikastola, Telleri-Alde Ikastetxea eta Bizarain Ikastetxea.

Urte hauetan zehar sendotuz joan den proiektuak 1.000 ikasle eta hezkuntza arloko profesional baino gehiago sensibilizatu ditu. Ikasturte bakoitzean

metodologia eta edukiak egokitzen badira ere, helburu nagusia bere horretan mantentzen da: hezkuntza komunitateak kultura-aniztasunaren inguruan hausnartu eta sentsibilizatzea, hizkuntzei eta bereziki hizkuntza gutxituei balioa emanez. Lantzen diren gaien artean: munduko hizkuntza homogeneizazioaren arrazoiak, ingurune hurbileko aniztasunaren hazkundea, diskriminazioa eragin dezaketen kategoria, eta kulturek identitatean zein

garapen pertsonalean duten garrantzia aurkitzen dira, besteak beste.

Proiektua gauzatzeko, funtsezkoa izan da Errenteriako bizilagunen eta Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programako hizkuntza aktibisten ekarpena. Haien parte-hartze aktiboari esker, aurrez aurreko truke kulturalak eta esperientzia aberasgarriak sustatu izan dira, hezkuntza komunitatean aniztasunarekiko begirada inklusibo eta errespetuzkoa indartuz.



2025-26 ikasturtean Koldo Mitxelena ikasle talde bat Arituko hizkuntza aktibista batek gidaturiko saioan



Egiluze ikastetxeko ikasleak sentsibilizazio saio batean



2025eko

BALANTZE EKONOMIKOA

EGITURA

LERRO ESTRATEGIKOAK:

1. Finkatze instituzionala eta antolakuntza
2. Formazioa eta aholkularitza
3. Euskal Herria

LAN TALDEA



ZUZENDARITZA
BATZORDEA



KONTSEILU
NAGUSIA



BATZAR
NAGUSIA



BABESLEAK
32 entitate



LAGUNTAILEAK
Euskal Herriko
53 entitate
sozial



BOLUNTARIOAK
30 boluntario



BAZKIDEAK
84 bazkide

BALANTZE EKONOMIKOA

SARRERAK

Diru laguntza lehiakorrak	617.063,04 €
Hitzarmenak, bazkideak, produktu eta zerbitzuen salmenta	358.482,53 €

GUZTIRA

975.545,57 €

GASTUAK

Bidaide programa: hizkuntza komunitateekiko lankidetza proiektuak + on-line formazioak	121.413,95 €
Hegoko diplomaturak	417.742,45 €
Kongresua	126.732,53 €
LEEA hitzarmena_Aditua	205.000,00 €
Administrazioa	18.838,20 €
Koordinazioa	48.542,05 €
Zabalkundea	37.776,39 €


GUZTIRA

976.045,57 €

ERAKUNDEAK

ERAKUNDE BABESLEAK

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



BABESLE, BAZKIDE, LAGUNTZAILE ETA BOLUNTARIOAK

Garabideren lana erakundeek, zein norbanakoek babesten dute. Ekarpen ekonomikoa egiten duten erakundeei babesle deitzen diegu eta norbanakoei bazkide. Aldiz, diruz bestelako ekarpena egiten duten erakundeak laguntzaileak dira eta norbanakoak boluntario.

Garabidek 2025eko bukaeran **32 erakunde babesle** zituen. Horrez gain zinez eskertu behar dugu **85 bazkideek** erakutsitako babesa.

Ekarpen ekonomikoa egitetik haratago, **30 boluntarioren eta 62 entitate laguntzailerren lana** aitortu eta zintzoki eskertu behar dugu, hizkuntza lankidetzako proiektuetan euren denbora eta esperientziak partekatzeagatik.

Dimentsio eta ezaugarri anitzeko ekarpen guzti horien baturari esker izan da posible memoria honetan jaso ditugun hizkuntza lankidetzako ekimenak aurrera eramatea. Beraz, eskerrik asko guzti-guztiori.

garabide
euzoapik

BABESLEAK





LAGUNTZAILEAK



Ayuntamiento de Aoiz
Agoizko Udala



Aurizko
Udala
Ayuntamiento de
Auritz/Burguete



antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



Araia
Herri
Eskola



ARGIA



aranzadi
zieltzia elkartea



arizmendi
ikastola



arroso
irratien sarea



CINÉMA VO



AUBIXA



AURTEN BAI
FUNDAZIOA



BEK
BARO



berria



GURE IKASTOLA
HENDAIA



easo
politeknikoa



EGUZKIBEGI
IKASTOLA KOOP



Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea



elhuyar
ezagutuz aldatzea



emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



ERRI GORA



EUSKADIKO GKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI



EUSKAL
WIKILARIEN
KULTURA ELKARTEA



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EuskarAbentura
Jizioqui dugu!



euskarabidea



Euskararen Etxea



goiena[“]



garabide erabipia 2025

943 25 03 97
688 63 24 33

garabide@garabide.eus
www.garabide.eus

 /Garabide.eus  @garabide  /Garabide  /Garabide Elkartea  @garabideelkartea